



PRENTSA OHARRA

Maiatzaren 13an, larunbatean, Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna ospatuko da

Bidezko Merkataritzaren mugimenduak mundu mailako injustiziaren eta berdintasunik ezaren aurka egiteko deialdia egin du.

2017ko maiatzak 9 –“Kausadun errebolta-riak gara. Bidezko Merkataritza gara, eta zu?” goiburupean, maiatzaren 13an, Iruñea ere elkartuko da 50 herrialde baino gehiagoko milaka pertsonarekin Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna ospatzeko. Egun hau ospatzekoa da, eta salatzekoa ere bai: populazioaren %1ek ondasun globalaren erdia baino gehiago dauka, eta %80a doi-doi heltzen da %6ra. Egoera hau deusezta daiteke, beharrezko neurriak hartuz gero. Jardunaldi honetan, Bidezko Merkataritzako elkarteek deialdia egingo diote gizarteari berdintasunik ezaren aurka egiteko, eta baita merkataritza-aukera honek justizia globalaren eta Agenda 2030 delakoaren alde laguntzen duela aldarrikatuko ere.

Iruñean, Bidezko Merkataritza-Partzuergoak aurkeztu egin ditu datorren larunbatean, maiatzaren 13an, **Bidezko Merkataritza Mundu Eguna** ospatzeko buruko diren jarduerak. Iruñeko **Sarasate Ibiltokian** izango dira **11:00etatik 20:30era**. Partzuergoko elkarteak hauek dira: **ADSIS-EQUIMERCADO, VICENTE FERRER FUNDAZIOA, MEDICUS MUNDI NAVARRA, OCSI, OXFAM-INTERMÓN, SETEM eta PUEBLOS HERMANOS.**

Halaber, jardunaldian zehar, gonbidapena luzatuko zaie herritarrei mundu mailako ezberdintasunik ezaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka egiteko. Horretarako, **#RebélateConCausa** sare sozialetako kanpainan parte har dezakete herritarrek, baita azaldu ere nola lagundu ahal duten mundu hobeaz lortzen Bidezko Merkataritza mugimendutik. Ekintza guztien agenda www.comerciojusto.org webgunean kontsulta daiteke.

Bidezko Merkataritzaren Jaia **Iruñean** ospatzen da 2003. urtetik, eta, horrela, bat egingo du hiriak egun berean Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna ospatuko duten gure geografiako eta mundu mailako beste 100 hiri eta herri baino gehiagorekin, ekintza ugariak aurrera eramanez: musika jarduerak, dantzak, ipuin kontalariak, eta bidezko merkataritzako produktuen salmenta eta informazio guneak.

ASTEAN ZEHAR EGINGO DIREN BESTE JARDUERA BATZUK

Bidezko Merkataritza-Partzuergoak, 2017ko maiatzaren 13an, Sarasate ibiltokian, ospatuko den Nazioarteko Eguna dela eta, jarduerak egiteko proposamen zabalak luzatu ditu herritarrak kontzientziatu eta sentsibilizatu nahian, kontsumo arduratsu, jasangarri eta Giza Eskubideekiko begirunetsuaren gainean.

- **Erakusketa** Nafarroako Parlamentuan, maiatzaren 2tik 14ra: “Bidezko Merkataritzako Kafea”.
- **Bakarrizketak:** ehungintza, teknologia eta elikagaigintzari buruzkoak, Iruñeko zenbait bus-lineatan, maiatzaren 8tik 12ra bitartean.
- **Hitzaldiak:** “Kafea eta Bidezko Merkataritza: Kontsumo Arduratsuaren egiazko aukera”, maiatzaren 10ean (Nafarroako Parlamentuan) eta 11n (Civivox Iturraman), *Espanica* kafe markaren ordezkariekin.
- **Gosariak eta meriendak** Iruñeko Alde Zaharreko kafetegi kolaboratzaileetan, maiatzaren 10, 11 eta 12an.

DESBERDINTASUNEN AURKA BORROKATU

Pobreziaren indizeak jaitsi diren arren, 836 milioi pertsonak ezin dituzte bete oinarrizko beharrak elikaduran, etxebizitzan, hezkuntza edo osasungintzan, 2015eko (NBGP) Nazio Batuen Garapenerako Programaren arabera. Bestalde, desberdintasuna gero eta handiagoa da. Gaur egun, populazioaren %80k mundu mailako ondasunaren %6 bakarrik dauka, eta %1ak (aberatsenen kopuruak), berriz, ondasunen erdia. Beharrezko neurriak hartuz gero, errealitate horiek alda daitezke. Lana neurri horietako bat da, baina lanak duina izan behar du, zeren eta pobreen heren batek enplegua dauka, baina ordainsari eskas eta aldakorrek jasota (LANE-OIT Laneren Nazioarteko Erakundearen arabera, pertsona horiek egunean 2 dolar baino gutxiago dute nekez bizitzeko). Horri genero-desberdintasuna gehitu behar zaio: maila globalean, emakume nekazariak, elikagai produkzioaren %80 sortzen dutenek, lurraren %30 dute ozta-ozta. Horrez gain, klima-aldaketak, desertifikazioak eta lurren degradazioak eragin zuzena dute lau pertsona pobretik hirurentzat, eta nekazaritzatik bizi direnentzat batez ere. Afrikan, langileen erdiek egiten dute lan sektore horretan.

Egoera horren aurrean, eta pobrezia gainditzeko helburuaz, 193 gobernu-ordezkarik Nazio Batuetan bildu eta Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) onartu zituzten, hau da, 2030ean baino lehen bete behar diren 17 erronka eta dagozkien helmuga zehatzak. Helburuetan alderdi hauek hartzen dira kontuan: elikadura segurtasuna, lan duina, genero berdintasuna, produkzio eta kontsumo jasangarria edo ingurumena zaintzea. Bidezko Merkataritzak, erakunde guztiek bete behar dituzten oinarrizko 10 printzipioen bidez, modu argian laguntzen du “Agenda 2030” delakoaren helmugak lortzen, eta, horren ondorioz, ingurumena babesten eta herrialdeak garatzen ere bai.

Bidezko Merkataritzak irizpide hauek ditu oinarritzat: lanerako baldintza duinak eta seguruak, ordainsari egokia eta bidezkoa, eta lanaren munduan hurren esplotaziorik eza

ziurtatzea. Halaber, erabilitako merkataritza-praktikak elkarre produktugileak errespetatzen ditu, irabaziak maximizatu gabe. Kudeaketaren gardentasuna eta erabakietan langileen partaidetza beste bi printzipio dira merkataritza aukera honetan. Horrela, Bidezko Merkataritzak laguntzen du pobrezia gutxitzen, elikadura segurtasuna lortzen, lan duina bultzatzen, herrialdeetan eta herrialdeen artean dagoen desberdintasuna murrizten, baita gizarte bidezkoak, baketsuak eta inklusiboak sustatzen ere. Horrela egiaztatzen du Sunil Chitrakar-ek, Mahaguthi artisau elkartearen zuzendariak: *“Hemen ikusi dugu Bidezko Merkataritzak lortu duela 20 artisau-elkarteetako 40.000 pertsona baino gehiago pobreziatik ateratzea, ekonomikoki burujabeak izatea, baita gizartearen barnean baloratuak izatea ere.”*

Bidezko Merkataritzako beste printzipio bat, funtsezkoen artean, genero berdintasuna bermatzea da: bidezko ordainsaria eskainiz, lan berbera eginda gizonezkoen lankideena bezalakoa irabaziz, eta erabakitzeko eremuetan partaidetza bultzatuz. Ivana Calderón-ek, Nikaraguako CECOCAFEN elkarteko kafe-kultibadoreak, hauxe azaltzen du: *“Gure kafea ekologikoa da, ez dugu aplikatzen osagai artifizialik, nutriente naturalak erabiltzen saiatzen gara, hala nola kafearen beraren hondakinak, prozesatzen den pulpa, landareak baldintza hobereenetan garatzeko ongari gisa erabiltzen diren ezti urak.”*

BIDEZKO MERKATARITZA ZENBAKITAN

Bidezko Merkataritza mugimendua 60ko hamarkadan sortu zen, eta, gaur egun, nekazari, artisau eta produktugileen 2.000 erakunde baino gehiagok osatzen dute Latinoamerika, Afrika eta Asiako 75 herrialdetan. Bi milioi pertsona baino gehiago ari dira lanean, eta sare horretan 500 elkarre inportatzaile eta 4.000 denda espezializatu baino gehiago daude Europan. Horrez gain, Bidezko Merkataritzaren 10 printzipioak betetzearen aldekoak diren nazioarteko erakundeak ere badaude.

Espanian, 2015. urtean, Bidezko Merkataritzaren kontsumoa 35 milioi eurora iritsi zen, aurreko urtean baino bi milioi gehiago lortuta. Elikagaiak salmentaren %93 dira, artisautza-produktuak %5 eta kosmetika naturalak %2a. Kontsumoa igo den arren, Espainia azken tokietan dago beste herrialde europarren aldean, Bidezko Merkataritzan batez besteko gastua biztanleko eta urteko 16 aldiz handiagoa baita.

Iruñean ospatuko den egun hau Bidezko Merkataritza-Partzuergoaren elkarteek antolatuko dute. Ekimen honetan, baita asteen zehar garatuko diren bestelako jardueretan ere, ondoko erakunde hauek dira kolaboratzaileak: Iruñeko Udala (Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Programaren bitartez), Nafarroako Gobernua, Diario de Noticias, Cadena Ser eta Euskalerrria Irratia. Eta parte hartuko duten elkarteetako 50 pertsona boluntario baino gehiagori esker gauzatuko da.
